

Euskarazko sailean hirugarren saria

Ilpuin historikoa, itxuraz benetako datuetan oinarriturik dagoena. Antzinako atmosfera eta giro hura islatzea nahikoa ondo lortuta dago.

Lukene Igartua

OLIVERREN ITZULERA

MIRAMBEL" oihukatzen zuen, emakume izen bat balitz bezala. "Mirambel" bere ahotik irtetzen zen hotsak indarrak berritzen zizkion. Indarrak agortuak zeuzkan, elur gainean pausu bakoitza neketsua gertatzen zen eta aurrera egitea gero eta borroka zailagoa.

Orduak zeramatzen elurra zapaltzen bere oinek egiten zuten kraska lehor hura isiltasun zurian soinu bakarra zuelarik. Jada gorrotatzen zuen elurraren kraska estaltzen zuen "Mirambel" hitzak.

"Mirambel", pausu bat, "Mirambel" pausu bat, "Mirambel".....

Mendilerroa zeharkatzea zuen helburu bakarra eta bere helburua gertuago zuen heinean, bere gorputz ahularen nekeak zailtzen zion xede hori betetzea.

Mendi gaina lainotua zegoen eta bide egokia hartu ote zuen zalantzarekin batera, beldur bat nahasten zen, bere bila etorri zitezkeela. Bost urte zeramatzen gizon haiek, bost urte Mirambeletik urruti. Eta orain, ihes egin ondoren, ziru zegoen egin behar zuena egin zuela. Beldurra aldamenean zeraman bidaiari bat zen ordea, bide guztian lagunduko zion bidaidea.

"Mirambel", nekea, "Mirambel", mina "Mirambel", beldurra....

Arratsaldea aurrera zihoan eta zelai txurietan marra zuzen bat ageri zen. Urrunetik ikusi zitezkeen lerroak gezi itxura zuen. Gudariarengana zuzentzen zen geziak, bere kokalekua agerian uzten zuen. Izan ere, bere urratsek marrazten zuten lerro zelataria bidea egin ahala luzatzen zen.

Lerroa elurrik gabe zeuden haitz batzuetara zuzentzen zen, gerlariak bertan atsedean hartzeko txokoren bat aurkitzeko parada izan zezakeela uzte zuen.

Haize hotz leunak aurpegia ikutzean esna mantentzen zuen, aurrera egin behar zuela gogorarazten zion, baina esku biluzietan haizearen eragina labankada zorrotzera bezain krudela zen. Eskuak inoiz berotu ezingo zituela iruditzen zitzaion, betirako izoztu itxura hura mantenduko

zutela. Bat makilara helduta, bestea erorita, indargabe, hilik ote?

"Mirambel", atsedena, "Mirambel", hotza, "Mirambel", beldurra....

Haitzetara gerturatzen zen heinean, koba bat izan zitezkeela iruditu zitzaion. Bapatean pozak eta ardurak elkar jo zuten bere burmuinean. Berarentzat gordeleku izan zitezkeena, beste piztiaren baten gordelekua ere izan zitezkeen, baina gauaren hurbiltasunak eta hotzak, piztiak baino pisu gehiago zuten balantzan. Kobako sarrerara heltzerakoan tentuz begiratu zuen barrualdera. Harridura isladatzen zitzaion aurpegian eta une batez bere hotz, gose eta beldur guztiak ahaztu zituen. Izoztutako urjauzia koba barruan! Kobaren zoruak erreka izoztu bat zirudien eta kobaren horma baten erreka zutik jartzen zela zirudien. Zorua, hormak eta sabaia, den dena izoztuta zegoen. Ikuskizunak aho zabalik utzi zuen.

Koba asko etxetzat hartuak zituen Mirambelesko mendi inguruetan ardiak zaintzera joaten zenetan, baina horrelakorik ez zuen inoiz ikusi, ez eta herriko jende nagusiari ezer antzekorik entzun ere.

Barrura sartzea erabaki zuen. Izoztuta egon arren barrutik zetorren airea kanpoko baina goxoagoa zen eta goxotasun faltan aurkitzen zen Olivier. Izotz gainean ibiltzea zaila zenez, kobaren barnealdera iritsi orduko birritan irrist egin eta bere gorputzak egiaztatu zuen lur izoztua gogorra eta hotza zela.

Argia eta izotza ia batera desagertzen ziren kobaren barnealdean. Animalia azarnak ikusi zituen, baina gutxienez aurreko udakoak ziren, beraz bertan geratzea zen momentuz arriskurik gutxien zuen aukera. Bizkarrean zintzilik zeraman poltsatik zuen guztia atera zuen: ardi larrua, labana, ogi lehor zati bat eta eskukada bat intxaur. Gauari aurre egiteko zituen armarik onenak zirela otu zitzaion.

Poltsa hutsik eta sabela erdi bete zituela, biharamunean mendilerroa zeharkatzerik ez bazuen bereak egina zuela

pentساتن hasi zen. Horrelakoak burutik kentzeko edo, ordua arte bizitakoan barnebiltzea erabaki zuen:

“Mirambelen, txikitan, baserrian... hura bai bizia, lana ugari, baina beti jolasean. Gaztetan baserriko lana zer zen ulertzen hasi orduko, beste bizitza mota batekin amets egiten hasi nintzen. Gerlari izateak bazituen bai bere alde onak: Norberaren balentriagatik herri eta neska guztien ahota begotea, noizbait lurren jabe izatera heltzea eta lan nekeza mihhestea. Amak ezik, inork ez zuen orduan bizimodu honen alde gogor eta delatela ikusten. Honela “Carolus Haundia” etorri zitzaigun, Mirambel hartu zuen eta mairuak berriz zituen. Gerlari izateko aurretik askaintzen zitzaigun orduan, gure familiak mairuak arriskutik salbu utziaz. Bost urteko gudu-aldietan hildakoak ikusi nituen, biolentzia jasanezina, baina ez nuen mairuak azal, arima, eta bihotz beltza aurkitu, hainbestetan entzuna genuen mairuen gaizotasuna.

Gerlari bihurtu ondoren mendilerroa zeharkatu behar genuen hegoalderantz. Mirambeletik, haranean barna bi bide omen zeuden mendilerroa zeharkatzeko: bata mendebaldera zegoen ibai bortitza eta urjauzi ugarien haranetik, gertuago aurkitzen zen, baina mendi-lepoa gogrago zegoen eta zailagoa omen zen. Bigarrena berriz haranaren amaieraraino zihoan, hegoaldera, beti elurrez estalitako mendiek guztiz inguratzeraino. Han ez zen parrubide samurrik begi-bistan ageri. Haitzez eta elurrez osaturiko mendi haiek erronka jotzen zuten erraldoiak ziruditen.

Udazkenean eta mendietako elurak begietan min egiten zuen. Artzainen laguntzarik gabe inoiz ez genuen mendilerroa zeharkatzea lortuko. Lehen aldia zen horrenbeste gure mendietan barneratzen nintzelako eta beste aldean aurkitu nezakeenak jakinmina sor arazten zidan: mairuak ziren beste aldeko gizaki guztiak? Mendiak inoiz bukatuko al ziren? Galdera asko erantzun gabe.

Mendiak ez ziren amaitu, ez behintzat bertzat, baina hegoalderago jo zutenek zioten, udan gutuzkiak erretzen zituen lautadak aurkitu zituztela. Mendialdean berriz, mairu gutxi zegoen eta baserriak, menditar asko. Neure familia ikusten ari nintzela iruditzen zitzaidan askotan. Nirekin gerlaria joan zirenak baino anaiago, gertuagokoak nituen menditar arrotz haiek. Baina guda eta mairuak aitzakiatzat hartuta, menditar haiek hil eta bortxatzen genituen. Armak lanabesen aurka. Lapur bat bihurtzen ari nintzen, aitzakiaduna, baina lapurra. Benetako guduak ere borrokatu genituen... Jasangaitza gertatzen zitzaidan bizimodu hura. Horregatik egin nuen ihes.

Mendilerroa zeharkatzea, ia ezinezkoa zitzaidan. Gainera biderik aldrebesena aukeratu behar nuen nire bila etorri ez zitezen. Irris egiteko zorian ere egon nintzen oinak eta eskuak batera erabili behar izan nituenean. Behera ezin begiratu, ezkerretara pareta izugarria, beraz gora egin behar. Mendilerroa zeharkatzea, ia ezinezkoa, lortuz gero bizia berriz hasteko parada. Bidean hilez gero orain dela bost urte hasitako heriotza geldoaren amaiera.”

Mendilerroaren bestaldean aurkitzen zen leku gogoangarri haren izena ez zuen jada gogoratzen, baina aurkituko zuen bai, eta zelai haietan biziko zen, udan ardiekin, mendietako elurra ukitu arte igoko zen goiko zelaietara, mendi haien garaieraz gozatzeko. Mendi haiek osatzen zuten borobil erdiak garaiera izugarria zuen, kondairetako erraldoiek ere ezin ziren horren garaiak izan. Indarra, gogortasuna eta neurrigabetasuna adierazteko norbaitek eginak ziruditela pentsatuaz lo hartu zuen.

Gauaren erdian hotzak esnatu zuen, ondoan zuen izotza ikustean koba gogoratu zuen, eta ikusi zezakeela konturatzean kobaren ahora begiratu zuen. Argitasun berezia zegoen, elurak gauean ematen duen argitasun xumea. Kanpoaldera joan eta inor ez zela ageri ikusi nahi zuen, elurra ahora eramatea ere nahi zuen, baina koba izoztuan ibiltzea ez zen erreza bere larruzko oinetakoekin eta zegoen lekuan gelditzea erabaki zuen. Lo bueltatuko ez zen beldurrez begiak itxi zituen eta izarrei begira lo gelditu zen gau ugariak gogoratzen hasi zen.

Horrela gau batetan etorri zitzaion ihesaren ideia. Ipar-lazarrari begira zegoen eta alde egiteko beharra somatu zuen. Bere ez zuen bizitza haren parte, berak ez zuen heriotza gorri bat nahi, heriotza bortitza, gogorra, zaratatsua, odoltsua. Elurak ez zuen inor hil nahi ezta ere inork bera hiltzerik, ez zeukan zer ikusirik gudaroste harekin edo eta azken urteetan bere lagunak izan zirenekin. Heriotzaren koloreez gogoratu zen orduan: bazekien heriotza gorria ez zuela nahi eta aukeran heriotza berdea zuela gogokoan, bere artaldea zaintzen zelai ezezagun haietan mendiei begira gertatuko zena. Beste aukerarik ere bazegoen: beltza (gauean zetorrena), urdina (Simoneren begietara begira, ohean, gaixo beharbada), grisa (egun euritsu batekoa). Orain beste kolore bat zuen bere zerrendarako: Heriotza txuria, elurretan gerta litekeena, eta hau ere gorria baino askoz nahigo zuen, txuria, lasaia, isila, paketsua.

Gaua igaro zen lo kumuxka eta pentsamendu artean, eguna argitu zenean ez zekien ametsak ala esna zegoela pentsatutako ideiak ziren burura zetorkionak, baina kobazuloa argitan berriz ikusi zuenean bezperan sentitutako harridura igarri zuen bapatean.

“Leku hau berezia da benetan” pentsatu zuen.

Hau bururatzen zitzaion bigarren aldia zen azken bost urtetan: lehen aldia mendiek osatzen zuten borobil-erdi erraldoi bikainari begira izan zen eta bigarrena, orain kobazulo izoztuan. Bizitzan ahaztuko ez zituen tokiak.

Kobatik irtetzean bere urrats zelatariak desagertu zirela ikusi zuen eta gauean elurra egin zuela konturatu zen bapatean.

“Alde ona, nire bila etortzerik ez dutela izango da, baina eragozpena elurra gehiago pilatu dela eta ibiltzeko zailtasun handiagoak izango ditudala” pentsatu zuen bere baitan.

Orduan mendialdera begiratu zuen aurreko egunean estalita zeuden mendiak ikusteko eta bere begiek ziotena ezin sinestu. Harresi bat! Bere aurrean hormatar bat zeukan, ehun gizon bata bestearen gainean jarrita ere goia ikutuko ez luketena. Harresi izugarria bitan zabaltzen zen. Mendiko irudi bat baino norbaitek eginikoa zirudien paisaia hark,

gudarostean behin baino gehiagotan entzun zuen istorio bat zekarkion burura.

Istoria entzun zuen lehen aldia etxean izan zen, Mirambelen, gertatu eta gutxira. Gero denboraren eta jendearen imaginazioaren poderioz kontua luzeagoa eta ausartagoa bihurtu zen, baina istorioak eta menditarte hark bazuten bai antzik: “Carolus Haundia” mendien bestaldean zegoen mairuen aurkako borrokan. Gerla ugari irabazi ondoren, bere gudarostearekin bueltan zetorrela mairuek gudarostean zioan azken taldeari eraso bortitza jo zioten eta taldea suntsitu zuten. Bertan hil ziren “Carolus Haundiaren”



baliozko gerlari ugari, tartean Roland gudaria zelarik. Hau hiltzera zihoala eta bere lurraldea berriz ere ikusiko ez zuela jakin zuenean bere Durandel ezpata bortizki jaurtiki zuen haitzetara. Horrenbestekoa zen indarra eta bere herriarenganako maitasuna, haitza bitan banatu zuela eta horrela mendiaren bere alde ikusiaz pozik hil zela. Durandel ezpata berriz, betirako haitzean sarturik gelditu zen.

–“Durandelek sortutako haitz-arte hori ote dut orain begibistan?” otu zitzaion.

Harresia izugarri handia zen, munduko gudaroste guztiak batera ere aurre hartzerik ez zutena, aberatsen eraikuntzak egiteko erabiltzen diren harri landu, zuzena baino zuzenagoa eta horma sendoagoa.

–“Nork izan dezake baina horrelakorik egiteko boterarik edota indarririk? Haitz-arte zeharkatzerakoan mendiaren nire aldean izango ote naiz? Etxetik gertu?” Galderak buruan kolpatzen zitzaizkion.

Bere abenturak amaiera alai izan zezakeenaren itxaropenaz abiatu zen. Bezperako nekea hezurretan itsatsi zitzaiola zirudien. Maldan gora zihoan elurretan belauneraino sartzen zelarik. Pausua geldoa baina ziurra zeraman. Gora iristeko goiz osoa beharko bazuen ere, lortuko zuenaren duda izpirik ez zeukan.

Mirambel, pausu bat, Durandel, pausu bat, Mirambel...

Bi izen hauen ahoskeraren arteko antzekotasuna, beraien esanahia, haitzartearen istorioa zerabilen buruan eta aukeran nahiago zuen Mirambel, herria, Durandel, ezpata baino. Legenda egia ezin zitekeela izan pentsatzen zuen. Egia balitz Carolus bera eta gudu horretan bizirik gelditu ziren guztiak Mirambeletik pasatu behar ziren Olivier Carolus Handiaren gudarostean sartu ondoren, eta berak ez zuen horrelakorik ikusi. Gainera hiltzorian aurkitzen zen gizonaren indarrak eta ezpatak ezin zuten hormatzen hartan zulorik egin. Aukera bakarrak... Roland dohain bereziko izakia eta Durandel ezpata magikoa izatea ziren, legendak horrelakorik aipatzen ez bazuen ere.

Gaina hartzera zihoala elurrik izan ezean Durandel-en bila hasiko zela pentsatu zuen.

–“Udan berriz ere etorri beharko naiz Durandelen arrastoak aurkitzera” esan zuen ahots garbi eta ozen batekin. Bi egun zeramatzen inoren ahotsik entzun gabe eta bere ahotik irten zen soinuak harritu zuen.

Eguerdi aldera haitzartea zeharkatu zuen, leku magikoa zela otu zitzaion, beste aldean mendiaren bere alde zegoela ikusi zuen, iparraldea.

–“Heldu naiz” egin zuen oihu.

Orduan mendilerroa lehenengoz zeharkatu zueneko harana ezagutu zuen, hau zen bere ametsetako lekua, izena gogoratzen ez zuen lekua: borobil erdia osatzen zuen mendikatea, urjauzi erraldoia eta berak artzantzan egiteko zelai zabalak, orain guztiak txuriz estalita, izoztuta. Hegoaldera begiratu zuen eta kobatik zetorren gezia zen paisaia zegoen lekuz kanpoko pintzelada bakarra, beste guztia bere lekuan zegoen, txuritasun leuna inguru guztiaren zaindari zelarik.

–“Ahalik eta azkarren haranera jeitsiz gero, aukera gehiago bizirik jarraitzeko”, pentsatu zuen.

Beherako bidea hartu zuen. Eskuinera begiratzen zuen mendi erraldoi haietatik begirada kendu gabe. Mirambeleko druidarekin gogoratu zen orduan. Druidak leku berezietan egiten zituzten beraien bilerak eta, berezietan berezia, zirkulu hura zen. Zuzen egin zuen behera eta malda gogor bat jeitsi ondoren ezkerretara jotzea erabaki zuen. Handik, bost urte lehenago jarraitutako bidea gertuago zuen. Mendi-lepoa oso ezkerretara gelditzen zen eta Olivierrek zuzen jarraitzea pentsatzen zuen. Nekeak jota zegoen jada eta aldatzean behera erori zen. Elur asko zegoen eta berehala gelditu zen elur bigunean, baina elur-jauzi bat gertatu zitekeela eta segundu batzutan geldi-geldi egon zen. Zailtasun asko izan zituen berriz ere jaikitzeko. Tarracka joan zen mendiaren

azpialdeko lautadetara iritsi artean, gero eta hurbilago zegoen, baina bere indarrak gero eta murriztagoak ziren. Burua ere nahasten hasia zuen jadanik: pertsona ezagunak ikusten zituen bidea amaitzen laguntzera etorri balira bezala, eta lagun haien ahotsak entzuten zituen. Elurretan eseri eta atsedena hartzeko esaten zion ahots batek, beste batek berriz jarraitu zezala bordaren bat aurkitu artean.

Arratsaldea zen jada eta lautada elurtuan ibiltzea jeitea baino nekezagoa zen. Beste pausu bat emateko ere gai ez zela ueste zuenean, zelai erdian borda bat ikusi zuen, artzain batena izan zitekeela pentsatuz bertara gerturatu zen.

Borda txikia zen eta barrura sartzean ohe bat ikusi zuen, oiha txuri leunaz estalita zegoen ohe bat. Bi aldiz pentsatu gabe bertan etzan zen. Simoneren begi urdinak ere ikusten zituela pentsatu zuen orduan, “ondo lo egin” zioten begi haiek.

–“Lo egin eta bihar jarraituko dut” pentsatu zuen. Borda artzain batena baino gerlari batena zirudiela ere pentsatu zuen, eta heriotza txuria paketsua zela, isila, lasaia.

Gerlariaren gorpua elur gainean zegoen, haitz-arte erraldoiaren oinetan eta ahaztutako izeneko paisaia gogoangarriaren magalean, hilik.

Ohar Historikoa:

773. urtean Carlo Magnok, enperadore izendatua izan aurretik, Mirambel hiria hartu zuen Pirineoen iparraldean. Mirambel, gaurko Lourdes, Mirat mairuak gobernatzen zuen ordurarte. Carlo Magnok mairuen aurkako gudua Pirineoen bestaldera eramane zuen eta espedizio hauetako batetik itzultzean, 778. urtean Orreagan “Chanson de Roland”-en deskribatzen den bezala, Rolando Kondea, Carlo Magnoren iloba hil zuten menditarrek eta mairuek. Zigor espedizioak antolatuta zituzten orduan. Iberiar penintsulan mairuak zuten botere eta lurraldeak galtzen hasiko ziren orduan, bost mende geroago guztia galdu zuten arte.

773. urte aldera Pirene mendietako biztanleak jentilak ziren eta iparraldeko frankoen edo hegoaldeko mairuen erlijioak arrotzak ziren beraientzat.

“Chanson de Roland” kontearen legenda pirineotako hainbat lekutan kokatua izan da. Orreagan hasi eta Gavarnie-raino. Tartean 100 kilometro luze egon arren. Informazio iturriak: - [La Brecha de Rolando](#). Martinez Embid, Alberto. Ed. Desnivel. 2000.

- Internet.

